



## **Juan Karlos LOPEZ-MUGARTZA**

*Pamplona se dice Iruñea*, (como integrante del Grupo *Harbelex*), 1987, Ayuntamiento de Pamplona - Iruñeko Udala

*Navarra y el euskera / Euskara eta Nafarroa*, (como integrante del Grupo *Harbelex*), 1991, Gobierno de Navarra - Nafarroako Gobernua

*Garraren eta Karroiaren margoak*, 1994, Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia / Bilbao Bizkaia Kutxa

*Homenaje a Ángel Urrutia / Angel Urrutiari omenaldia*, (en colaboración con Consuelo Allué), 2005, Actas de la reunión poética en torno a Ángel Urrutia, Universidad Pública de Navarra

*Vascuence y Romance: Ebro-Garona, un Espacio de Comunicación* (en colaboración con Roldán Jimeno Aranguren), 2004, Gobierno de Navarra

*Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, 2008, Colección Mendaur, nº 5, Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia / Nafar Gobernua - Gobierno de Navarra

*Irasco y otros nombres de animales y plantas de Esco* (en colaboración con José Luis Clemente Sánchez), 2009, Cuadernos de Esco, nº 3, Asociación Pro-Reconstrucción de Esco

## La literatura vasca y ser escritor vasco en Navarra\*

Juan Karlos LOPEZ-MUGARTZA

Navarra es la cuna de la literatura vasca. Navarros fueron los primeros escritores vascos y sin Navarra no se puede entender la literatura vasca. Es cierto que Navarra durante muchos años no ha tenido una presencia destacable en las páginas de oro de la literatura vasca, pero también es verdad que los primeros y más importantes escritores clásicos fueron navarros (Etxepare y Axular), y, también es verdad que en la actualidad Navarra ocupa un lugar muy destacado en cuanto a producción literaria e importancia se refiere. Además, debe tenerse en cuenta que ese lugar lo hemos conseguido a pesar de los obstáculos de toda índole que hemos debido superar y que a nadie se le escapa.

Uno de los obstáculos que se deben superar es, precisamente, que la sociedad acepte que eres un escritor vasco, siendo navarro. Para una parte de nuestros convecinos esto constituye un contrasentido. Quien se considere a sí mismo *euskal idazle*, esto es, 'escritor vasco', sabe que está haciendo una elección; una elección parecida a la de aquel que se define como escritor bretón o escritor corso. Quien escribe en la lengua mayoritaria es escritor, pero quien escribe en la minoritaria no es un escritor a secas, es un escritor adjetivado. Necesita un adjetivo después del nombre: escritor vasco, escritor bretón...

112

La propia palabra *escritor* es fuente de confusión. No dan el diploma de escritor en ninguna parte; eres escritor en la medida que escribes, desde el momento en el que tienes algo que compartir de manera escrita. Pero de ahí a poder definirte como escritor parece que hay un trecho bastante largo. En el momento de definir tu personalidad, parece que es más común decir que soy profesor o estudiante, que soy montañero o deportista, progresista o conservador, creyente o ateo, que decir que soy escritor o poeta.

En última instancia, son los demás los que te hacen escritor. Cuando llega el Día del Libro y te llaman a la Plaza del Castillo para leer tus poemas, o cuando la revista de tu pueblo o barrio te pide unos poemas, te sientes poeta porque los demás te tienen por poeta. Pero, en general, las personas que escriben y no tienen obra suficiente suelen tener cierto pudor a presentarse como escritores, quizás por miedo a que se interprete esto como una muestra de vanidad o, incluso, de querer aparentar ser más de lo que se es. En nuestro caso, aprendimos a quitarle el miedo a definirnos como escritores (aunque fuéramos de un solo libro, o de poemas sueltos publicados aquí y allá) gracias al desaparecido Andolín Eguzkitza, presidente que fue de *Euskal Idazleen Elkarte* (Asociación de Escritores Vascos), quien nos enseñó que, por definición, es escritor todo aquel que escribe y tiene algo que crear y contar; además, si escribe en euskera es escritor vasco, y esta condición de escritor y de escritor, además, en euskera, hay que reivindicarla, pues lejos de ser un pecado, constituye un gran honor.

---

\* Traducción realizada por el autor

## Euskal idazlea eta euskal literatura Nafarroan

Juan Karlos LOPEZ-MUGARTZA

**N**afarroa euskal literaturaren sehaska izan da. Nafarrak izan ziren lehenengo euskal idazleak eta Nafarroarik gabe ezin da euskal literatura ulertu. Egia da Nafarroak ez duela hainbat urtetan euskal literaturaren urrezko orrialdeetan presentzia nabarmenik izan, baina, egia ere bada euskal literaturaren idazle klasikorik handienak eta lehenak nafarrak izan zirela (esaterako, Etxepare eta Axular) eta, halaber, egia da egungo egunetan Nafarroak inoiz ez bezalako lekua hartu duela euskal literaturan. Eta leku hori lortu dugu hainbat oztopo gainditu behar izan dugun arren.

Gainditu beharreko lehenengo oztopoa: gizarteak onartzea euskal idazlea zarela, nafarra izanik. Izan ere, bere burua euskal idazletzat jotzen duenak, badaki hautu bat egiten ari dela, idazle bretoaia edo korsikarra dela esaten duenaren antzera. Frantsesez idazten duena, idazlea da, baina gaskoieraz idazten duena ez da idazle hutsa, idazle adjektiboduna baizik. Adjektiboa behar du izenaren ondoren. Honek esan nahi du korsikar edo bretoin batek frantsesa dakien arren, korsikeraren edo bretoiaren hautua egin duela. Frantsesa menperatu arren, beste mintzaira bat aukeratu du bere barne mundua adierazteko. Idazle hutsa izan zitekeena, kultura gutxitu baten idazle izatera igaro da, honek dakartzan arazo eta traba extraliterario guztiekin. Eta idazle hutsa izatea erraza ez bada, hizkuntza gutxitu baten idazle adjektiboduna izatea zailagoa dela begitantzen zait niri.

# 113

Dena den, 'idazle' hitza bera ere arazoan iturria da. Azken batean ez dute inon ere idazle diploma banatzen, idazle zara, idazten duzun heinean, idatziz zerbait kontatzeko beharra duzun unetik. Baina, handik idazle zarela esatera bide luze bat dago. Zure nortasuna definitzeko unean, olerkaria naizela edota idazlea naizela esatea baino askoz ere errazago da esatea irakaslea edo ikaslea naizela, mendizalea edo kirolzalea naizela, progresista edo konterbadore, fededuna edo atea...

Azken finean, besteek egiten zaituzte idazle. Liburuaren egunean Gaztelu Plazara olerkiak irakurtzera deitzen zaituztenean, edo zure herriko aldizkari baterako olerkiak eskatzen dizkizuztenean, olerkaritzat hartzen zaituzte eta olerkari sentitzen zara. Baina, oro har, idazten duen jendea herabeti xamar da eta askori lotsa ematen dio bere burua idazletzat aurkezteak, harrokeriatzat, hots, handinahikeriatzat hartuko ez ote den beldurrez. Andolin Eguzkitza zenak idazle izateko lotsa galarazi zigun Euskal Idazleen Elkartearen zuzendaritzara deitu gintuelarik. Berak erakutsi zigun bezala, idazten duena idazlea da, eta euskaraz aritzen bada, euskal idazlea da, eta lotsarik gabe aldarrikatu behar duela hori, pekatua izan beharrean, ohore handia baita.

Idazle edota euskal idazle zarela onartu ondoren, egitate horretaz jabetu ondoren, beste arazo bat datorkizu burura: zer nolako euskal idazlea naiz? Idazleen artean mailak egitea ez da bate-

Una vez aceptado que eres escritor (y escritor vasco además), una duda asalta tu corazón: de acuerdo, soy escritor, sí, pero ¿en qué medida? Aceptando que son escritores todos los que tienen algo que crear y contar por escrito, parece evidente que existen diferencias entre el escritor ocasional y quien es dueño de una obra dilatada y de una larga carrera y resulta digno de reconocimiento. Comenzar a hacer distinciones entre unos y otros podría resultar políticamente incorrecto, pero permítaseme que sin querer herir a nadie y con una intención meramente explicativa, divida a los escritores vascos de Navarra en tres grandes grupos y que los sitúe como si viajaran en un mismo tren pero en tres vagones diferentes, y en tres categorías.

En mi caso, viajo en el tercer vagón, en tercera como se decía antes. En este vagón nos encontramos todos los escritores aficionados que con más o menos acierto intentamos compartir nuestras ideas con los demás y que disfrutamos escribiendo pero que no tenemos proyección. En *segunda* viajan aquellos escritores de gran proyección en el ámbito vasco pero que son desconocidos todavía por el público de fuera de nuestras fronteras. En *primera* encontramos a aquellos escritores que han consolidado su obra y son objeto de interés por las editoriales estatales. Los tres grupos de escritores conforman una pirámide que va estrechándose conforme se asciende hasta este primer grupo, pero es una pirámide muy firme, porque posee una gran base, los vagones de cola vienen bien cargados y aunque en cabeza viajan pocos, son muchos si los comparamos con los porcentajes de escritores en castellano que viajan en la misma categoría.

## 114

Por lo que respecta a Navarra, tenemos gran cantidad de escritores que son la base para que haya literatura de calidad. Es un problema de estadística pura, es más fácil que haya buenos escritores si hay gran cantidad que si hay poca, y en Navarra hay muchas personas preparadas que dominan la lengua vasca y que tienen muchas cosas que crear y contar por escrito. En este sentido, soy optimista con respecto al futuro de la cultura vasca y su literatura en Navarra, porque confío en el movimiento intelectual y cultural vasco de Navarra, otra cosa es que sea optimista con respecto al apoyo que este movimiento cultural pueda recibir de las instituciones.

### Respondiendo a algunas preguntas propuestas por la Revista TK

La redacción de la revista TK se interesa acerca de las relaciones que mantienen entre sí los escritores vascos de Navarra, y, desde mi humilde posición en el vagón de tercera, estimo que la relación entre los viajeros de todos los vagones es muy buena. A lo largo del año hay muchas ocasiones para poder participar en actividades comunes y estrechar los lazos de amistad.

En la Cuenca de Pamplona, que es la zona que más conozco, existen muchos grupos y asociaciones comprometidos con la literatura vasca. Quizás la Asociación *Zaldiko Maldiko* sea una de las más destacadas por su exitoso ciclo *Liburuak irakurtzen dibertitzen gara* ('Leyendo libros nos divertimos'). Muchos han sido los escritores de primera fila que han pasado por los locales de la asociación. También es de destacar la labor que realiza el *Instituto Biurdana* en favor de la literatura vasca, con la lectura anual de la obra de un escritor en euskera, coincidiendo con la fiesta del Día del Libro. En Pamplona también la asociación *Karrikiri* reserva un lugar destacado entre sus actividades y en su página web para la literatura. Del mismo modo hay que resaltar el trabajo que realiza en este mismo sentido el Servicio Técnico de Euskera

re polita, badakit, baina politikoki guztiz zuzena ez den arren, nik idazleak hiru mailatan sailkatzera ausartuko nintzateke, atrebentzia handia ez balitz. Sailkapen horretan, hirugarren mailako “euskal idazleen” zakuan sartzen dut nik neure burua. Bagoi honetan bidaiatzen dugu idaztea atsegin dugun baina proiektiorik (ez handirik, ez eta txikirik ere) ez dugun guztiok. Bigarreanean bidaiatzen dutenak dira gure artean pisu handiko idazleak direnak baina atzerrian oraindik izena lortu ez dutenak, Euskal Herriatik kanpoko argitaletxeek ez dutelako haien aldeko hautua egin, ezezagunak gertatzen zaizkielako edo. Bukatzeko, lehen mailan bidaiatzen dutenak oso gutxi dira, aukeratuenak, Euskal Herriko mugak gainditu ahal izan dutenak eta kanpoko argitaletxeen arreta berenganatu ahal izan dutenak. Oso-osoa gutxi dira, bai, baina euskaldunen kopurua txikia dela kontua harturik, portzentaien aldetik, hagitz kopuru handia dela erran genezake.

Nafarroako egoerari dagokionez, idazle kantitate handia dugu, eta literaturaren kasuan behintzat, kantitatea eta kalitatea bai badatozkigula elkar harturik: idazle kantitate gutxi izanez gero, kalitate handiko idazle gutxi izanen ditugu; ildo beretik, idazle kantitate handia izanez gero, errazago izanen da kalitate handiko idazle gehiago izatea. Beraz, idazle kopuruaren aldetik ongi gaude eta, ikusiko dugun bezala, idazleen kalitatearen aldetik ere bai. Beraz, guztiz baikorra naiz egungo egoera literarioaren aurrean, bai Nafarroari dagokionez, bai eta euskarazko ekoizpenari dagokionez ere.

### TK aldizkariak eginiko zenbait galderari erantzunez

Lehenengo eta behin, idazle nafar euskaldunekin edo idazle euskaldun nafarrekin zer nolako harremanak ditugun galdetzen didazue, eta nik benetan harreman ona dugula esan behar dizuet. Aipatu ditudan hiru maila horietako idazleak elkarrekin egoteko aukera anitz ditugu urtean zehar antolatzen diren ekitaldietan.

Hainbat talde ari dira euskal literatura sustatzen Iruñean hainbat ekimenen bitartez. Agian ospetsuenak dira Zaldiko Maldiko Elkarrekin antolatzen dituen liburuen irakurraldiak “Liburuak irakurtzen dibertitzen gara” ekimenaren barruan. Hainbat eta hainbat idazle pasatu dira Iruñetik ekimen horri esker. Ildo beretik, oso kontuan hartzekoa da Biurdana Institutuak urtero-urtero eta neke gabe antolatzen duen Euskal Liburuaren Irakurketa Publikoa, hor aukera ezin hobea dute Iruñeko, Nafarroako eta Euskal Herri osoko idazleek elkarrekin egoteko, Biurdanakoek luzatutako gonbiteari esker. Zer esanik ez, Karrikiri Elkarrekin berak ere garrantzi handia ematen dio euskal literaturari eta hori nabaritzen da argi eta garbi bere eguneroko lanean, euskal literaturaren lehen mailako eragile eta erreferente bilakatu baita azken urte hauetan. Jakina, ezin da ahantzi Iruñeko Udalaren Kultura Arloaren Euskara Sailak Nafar Ateneoaren laguntzaz antolatzen dituen ekitaldiak. Era berean, Aspaldiku Elkarrekin urtero antolatzen dituen Poesia Biltzarrak garrantzi handikoak dira poesia hedatze aldera.

Egia esan, ezin dira literatura sustatzen duten talde guztiak aipatu, baten bat edo bat baino gehiago ahaztu gabe. Ez da harrizkoa Iruñeko auzoetan edota Iruñerriko herrietan euskal literaturaren aldeko ekimenak antolatzea. Txantreako Euskaldunen Biltokian poesia liburuak aurkeztu dira (Joakin Balentzia Tirapuren Liburua), Berriozarko Zulo Alai Elkarrekin errezital-

de la Sección de Cultura del Ayuntamiento de Pamplona, en colaboración con el *Ateneo Navarro / Nafar Ateneoa*. En el terreno de la poesía cabe citar el encuentro anual de poesía que organiza la asociación *Aspaldiku*.

Falta un estudio exhaustivo para saber cuántos grupos y asociaciones hay hoy en día en Navarra trabajando por el cultivo de la literatura en euskera. Yo me estoy limitando a dar unas pinceladas de lo que conozco. Pero sé que en los barrios y en los pueblos el interés por la literatura va creciendo día a día. Así, por ejemplo, en la Txantrea la Asociación *Euskaldunen Biltokia* ofrece sus locales para reuniones de la *Euskal Idazleen Elkartea* y para presentaciones de libros de poesía como el publicado por Joakin Balentzia Tirapu. Del mismo modo, en Berriozar la Asociación *Zulo Alai Elkartea* ha organizado diferentes recitales de poesía. Además la actitud de este ayuntamiento es especialmente favorable al fomento de la literatura vasca y de la creación literaria.

Por lo que se refiere a las asociaciones puramente literarias, por lo general, me da la sensación de que los escritores son muy celosos de su independencia y que normalmente no suelen estar todos incluidos en las asociaciones de escritores. Con todo, hay dos asociaciones que engloban a la mayoría de los escritores vascos de Navarra. Estas asociaciones son *Hatsa* (que reúne a los poetas navarros) y *Euskal Idazleen Elkartea* (en la que se incluyen además de poetas, narradores y ensayistas). La asociación *Hatsa* de Senpere (Saint-Pée-Sur-Nivelle, Laburdi) edita una revista anual en la que escriben la mayoría de los poetas navarros actuales, y a través del trabajo desarrollado por Auxtin Zamora, varias escuelas públicas e ikastolas de Igantzi y Pamplona han tenido la oportunidad de adentrarse de manera didáctica en el mundo de la poesía. La revista *Maiatz* de Bayona también suele ocasionalmente recoger aportaciones de escritores alto navarros, pero, aunque parezca mentira, en Navarra no se publica ninguna revista literaria en la que puedan escribir los escritores de aquí. Desde que desapareció *Korrok* no ha surgido ningún otro proyecto que llene su falta.

## 116

Por lo que se refiere a *Euskal Idazleen Elkartea* (EIE) en mi opinión es la asociación literaria más importante de todo el País Vasco. Tiene socios de todos los rincones del País Vasco, desde Zuberoa y Navarra hasta Vizcaya y Álava, pasando por todas las demás provincias centrales, Baja Navarra, Laburdi en Iparralde, y Gipuzkoa en este lado del Bidasoa. En la dirección de *Euskal Idazleen Elkartea* siempre ha habido algún navarro. Aingeru Epaltza, Jon Alonso, Joxemiel Bidador y yo mismo hemos sido miembros de la dirección. En la actualidad Josu Jimenez Maia es el vocal por Navarra de la asociación. *Euskal Idazleen Elkartea*, además, siempre ha tenido muy en cuenta a Navarra y ya desde tiempo atrás viene organizando diferentes actividades literarias en nuestra tierra. Esta asociación ha colaborado durante varios años con los programas de lectura organizados por el Gobierno de Navarra aportando escritores dispuestos a acudir a las aulas de enseñanza básica para debatir sobre sus libros. Organizó en 1997 el recital titulado *MAUTEN poemak* en el que tuve el honor de participar (MAUT es el acrónimo que une los apellidos de Juankar Mugartza, Josetxo Azkona, Maite Urkia y Mikel Taberna) y en 1998 organizó el primer curso sobre *Literatura Vasca actual en Navarra*, organizado junto con el Departamento de Filología de la Universidad Pública de Navarra.

Este ciclo llegó a tener hasta seis ediciones y por las aulas universitarias pasaron muchos de los escritores que viajan en el vagón de cabeza de la literatura navarra. Entre ellos recuerdo a

diak antolatu dira behin baino gehiagotan. Herri horretako udalak ere sostengu handia ematen dio euskal literaturari.

Beldurra ematen dit izenak ematen hasteak beti hainbat ekimen aipatu gabe uzten dituzulako hamaika direlako eta ezin direlako denak honera ekarri, baina giroa benetan oso heldua dugu Iruñean eta Iruñerrian, nik ezagutzen ditudan aldeak, eta uste izatekoa da egoera berean egongo direla Nafarroa osoko gainerako lekuetan.

Elkarte literarioei dagokionez, ezagutzen ditudan idazleak, oro har, bere kaxa ibiltzen dira eta honelaxe jarraitzea gustatzen zaie. Zaila da denak elkarte batean sartzea, denak batera hartzea... Senpereko *Hatsa* Elkarteak adibidez Nafarroako olerkari gehienon lanak biltzen ditu eta Auxtin Zamoraren lanari esker Nafarroako ikastetxe anitzetan olerkigintza lantzeko aukera izan dute gure ikasleek. Baionako *Maiatz* aldizkarian ere nafarren baten sinadura irakur daiteke noizean behin. Lucien Etxezaharreta da aldizkariaren eragile eta argitaratzailea. Baina gezurra badirudi ere, Nafarroan ez dugu aldizkari literariorik. *Korrok* aldizkaria itxi zenetik ez da beste bat sortu. Umezurtz gelditu gara.

Hala eta guztiz ere, hutsuneak hutsune, *Euskal Idazleen Elkarte* da, nire iritziz, nafar idazle gehien biltzen duena. Elkarte hau da egun Euskal Herrian dugun literatur elkarte nagusia eta, bere ezaugarriak ikusita, bakarra. Ez dago beste literatur elkarerik Euskal Herria osoan hedatua dagoenik eta lurralde guztietako bazkideak dituenik, bazkide horietako asko eta asko nafarrak izanik. Elkarte honek egin duen lana ez da oraindik behar den moduan baloratu, baina izugarritzko lan itzela egin du euskal literaturaren alde eta lan horretan nafarrek hartu dugu parte. Zuzendaritzan beti izan ohi da nafarren bat edo beste (Aingeru Epaltza, Jon Alonso, Joxemiel Bidador, Josu Jimenez Maia, ni neroni...), eta, jakina, hori dela eta oso-oso kontuan hartzen da Nafarroako egoera literarioa, noizean behin euskal literatura sustatzeko ekimenak proposatuz (adibidez, 1997an antolatu zuen *MAUTEN poemak* errezitaldia). Elkarteko idazleak Nafarroako ikastetxeetara joan dira behin baino gehiagotan beren liburuei buruz hitz egitera, eta oraindik gogoratzekoa da 1998an Nafarroako Unibertsitate Publikoan Euskal Idazleen Elkarteak antolatu zuen 1. literatur zikloa "Nafarroako egungo euskal literatura" gaiaz.

Zikloak sei bat urtez iraun zuen eta unibertsitateko geletatik Nafarroako idazle asko eta asko pasa ziren. Ziklo hartan parte hartu zutenen artean, besteak beste (denak ez baititut gogoratzeko), hauexek ditugu: Aingeru Epaltza, Jon Alonso, Josetxo Azkona, Juanjo Olasagarre, Patziku Perurena, Pello Lizarralde, Patxi Zabaleta, Iñaki Zabaleta, Jokin Muñoz, Isidro Rikarte, Andolin Eguzkitza, Josemari Satrustegi, Reyes Ilintxeta (antzerkian) eta Iparraldetik Itxaro Borda, Antton Luku, Daniel Landart, Txomin Peillen eta Aurelia Arkotxa, besteak beste. Joxemiel Bidador zenak eta Aingeru Epaltzak ziklo honen garrantzia aipatu izan dute haien lanetan. Benetan interesgarria suertatuko litzateke orduko ikastaro horiek suposatu zutena ikertzea eta parte hartu zuten idazle guztien zerrenda osatzea Nafarroako euskal literatura-erentzat mugarri garrantzitsu bat izan zelako.

Jakina zerrenda horretatik kanpo hainbat idazle gelditu ziren (lehen mailako idazleak, Jose Angel Irigarai bezalakoak, edo antzerki idazle onak Xabier Diaz de Esarte bezalakoak), ziklo-

Aingeru Epaltza, Jon Alonso, Josetxo Azkona, Juanjo Olasagarre, Patziku Perurena, Pello Lizarralde, Gorka Trintxerpe (Patxi Zabaleta), Iñaki Zabaleta, Jokin Muñoz, Isidro Rikarte, Andolín Eguzkitza, Jose María Satrustegi, y desde Baja Navarra y sus confines nos visitaron Itxaro Borda, Antton Luku, Daniel Landart, Txomin Peillen y Aurelia Arkotxa, autores todos ellos navarros o muy vinculados por una razón u otra a Navarra. El ciclo contó con la participación de cuentacuentos de la talla de Koldo Amestoy o personas del mundo del teatro como Reyes Ilintxeta, locutora de *Euskalerría Irratia* y que ha sido premiada en diferentes certámenes literarios y que es escritora de teatro en euskera.

De esta nómina de autores quedaron fuera muchos otros de reconocido prestigio como Jose Angel Irigarai en poesía, o Xabier Diaz de Esarte en teatro, y tantos más, sencillamente no nos dio tiempo de invitarles porque los cambios que se fueron produciendo en la universidad dieron al traste con la continuidad del ciclo. El grifo se cerró y las actividades relacionadas con la literatura vasca desaparecieron de raíz. A los años de plenitud siguieron varios años de sequía cultural en nuestra universidad. Aquel ciclo murió ahogado y, en la actualidad, aunque el euskera vuelve a respirar libre en la universidad pública, nada parecido a aquello ha podido tomarle el relevo.

En una de vuestras preguntas os interrogáis acerca de si los escritores nos sentimos respaldados por las instituciones. Por lo que a mí respecta siento que las instituciones hacen más bien poco por el euskera. Me da la sensación de que actúan a remolque, a regañadientes. Que lo que hacen en favor de la lengua hay que valorarlo, pero da la impresión de que lo hacen porque no les queda otro remedio, sin alegría, sin convencimiento, obligados por la situación. Ya he señalado la encomiable labor que realiza el Servicio Técnico de Euskera del Ayuntamiento de Pamplona y se podría hablar de actuaciones sueltas de tal o cual organismo de la Administración Pública, pero, en general, no parece que anden muy finos en este tema y se diría que los que quieren dar ayuda, no pueden hacerlo, y que los que pueden hacerlo no quieren.

118

Administración Pública y universidades podrían hacer más de lo que hacen. De esto no hay duda. En este sentido cabe traer a la memoria un caso paradigmático de falta de interés por la lengua que pudimos vivir no hace muchos años en Navarra. Otro departamento de literatura de otra universidad navarra publicó un grueso trabajo sobre la literatura navarra de todos los tiempos, y no se citaba ni un solo autor en euskera. No existíamos para los doctores en Filología de aquella universidad. Joxemiel Bidador, así como tantos otros vascos de Navarra, nos sentimos entristecidos. Joxemiel tuvo que emprender la realización de la magnífica obra *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra*, como una manera constructiva de superar aquel dolor.

Con todo, este tipo de feos detalles ya no sorprenden a nadie. Por lo general el vascofilo navarro está acostumbrado a este tipo de agravios. También es cierto que los que no son vascofilos, o directamente son vascofóbicos (que los hay), también tienen agravios que enarbolar contra los vasconavarros. Es la eterna reedición del cuadro de Goya "Duelo a garrotazos" en versión navarra. Uno de los argumentos preferidos en este tema y daga es que el euskera está politizado y yo lo acepto. Es cierto, el euskera pienso que está politizado (no más que lo pueda estar el propio parking de la Plaza del Castillo, por ejemplo), pero haciendo uso de un argumento bíblico, diría a una con Aquel gran maestro que quien esté libre de politizar el euskera que tire la primera piedra.



ari bukaera eman zitzaiolako, unibertsitateko arduradunak aldatu eta diru iturria agortu zelako. Urte latzak bizi izan genituen unibertsitatean euskararen kontuan eta hori ere nabaritu zen euskal literaturaren kasuan. Honela bukatzen dira anitzetan ilusioa pizten duten proiektu asko, txorrota itxi egiten da eta dena bazterrera doa. Hala gertatu zen ordukoan ere. Zuen galdera batean galdetzen duzue ea zein erakunderen babesa sentitzen dugun. Eta nik, behintzat, erakunde gutxiren babesa sentitzen dudala aitortu behar dizuet. Agian Iruñeko Udalaren Euskara Zerbitzuaren lana goraiatu beharko genuke, oso lan ona burutzen ari baita euskararen eta euskal kulturaren alde. Dena den, oro har, erakundeak ez dabilta oso fin alor honetan, batzuek laguntza eman nahiko lukete, baina ez dute modurik, eta modua luketenez ez dute eman nahi.

Joxemiel Bidador zenak mina, min handia, min sakona sentitu zuen, hemengo unibertsitate batek Nafarroako literaturaren historiaz liburu sorta bat argitaratu zuenean, bertan euskal idazle nafarrez hitzik ere erraten ez baitzen. Bidadorrek *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra* liburua idatzi zuen min hura arintzeko.

Dena den, detaile itsusi hau ez da harrizkekoa, erakundeek ez baitiote euskarari behar bezain besteko laguntzarik ematen. Eta nafar erakundeek euskarari zor dizkieten laguntzak ukatzen dizkiotenean mina areagotu egiten da. Euskara politizatuta dagoela esaten da, bai, baina euskara politizatzen ez duenak bota dezala lehenengo harria.

Hala eta guztiz ere, aurrera goaz, aintzina. Idazle onak ditugu Nafarroan, olerkari anitz, nobelagileak eta entseugileak (Castillo Suarez, Carmen Valois, Maite Urkia, Naiara Sanchez, Mikel Taberna, Angel Erro, Hasier Larretxea, Fertxu Izquierdo, Hedoi Etxarte, Luis Garde, Jokin Irigoien, Mikel Balentziaga, Alberto Ladron Arana, Aitor Etxarte, Patxi Mangado, Bixente Serrano Izko, Juanxo Urdiroz, Eduardo Gil Bera, Patxi Larrion, Aitor Txarterina...). Kazetariak berak ere maila altukoak dira eta literaturaren munduan sartu-irtenak egiten dituzte (Reyes Ilintxeta aipatu dugu antzerkiaren munduan, baina Euskalerrria Irratiko Kike Diez de Ultzurrun eta Juan Kruz Lakasta ere sarituak izan dira behin baino gehiagotan, eta, orobat, Alberto Barandiaran, Felipe Rius, Bingen Amadoz eta beste batzuk).

Duela urte asko On Jose Maria Jimeno Jurio maitatuak liburu interesgarri bat idatzi zuen: *Navarra Historia del Euskera*. Hantxe jasotzen dira, gogoratu beharreko hainbat eta hainbat izen (Mariano Izeta eta). Denak nafarrak, denak euskal idazleak. Nik banaka batzuk ekarri ditut orrialde hauetara, gehienak gaur egungoak. Bidadorrek erreskatatu zizkigun horiek, Alexander Tapia Perurena eta gainerakoak, ez ditut aipatu ere egin; ez legoke artikulu honetan horretarako hainbat leku. Ahaztu ditudanak izan dira, jakina, aipatu ditudanak baino askoz ere gehiago, beti gertatzen baita honela. Ahantziei eskatzen diet, otoi, barka nazaten. Jarrai dezatela idazten, haiek ere baititugu beharrezko.

Biblioteka publikoak ostatu ezin hobeak iruditzen zaizkit euskal literaturarentzat. Euskal liburuak aurki ditzakegu biblioteketan, herrietako biblioteka txikietan, auzoetan, unibertsitatean. Haien sostengua behar-beharrezkoa da euskaraz egiten den literatur sorkuntza lana gizarteratzeko. Liburudendetan liburuak saltzen dira gutxinaka-gutxinaka, liburu batzuk ez dira

Y con politización o sin ella, con ayudas o zancadillas, el euskera sigue adelante... *e la nave va*. Tenemos buenos escritores. Grandes poetas, narradores y ensayistas. Muchos nombres se nos harán familiares: Castillo Suarez, Carmen Valois, Maite Urkia, Naiara Sanchez, Mikel Taberna, Angel Erro, Hasier Larretxea, Fertxu Izkiderdo, Hedoi Etxarte, Luis Garde, Jokin Irigoien, Mikel Balentziaga, Alberto Ladrón Arana, Aitor Etxarte, Patxi Mangado, Bixente Serrano Izko, Juantxo Urdirroz, Eduardo Gil Bera, Patxi Larrion, Aitor Txarterina... y una pléyade de periodistas que son a la vez creadores literarios: junto al nombre de la citada periodista Reyes Ilintxeta, hay que escribir los de Juan Kruz Lakasta y de Kike Diez de Ultzurrun (descendiente, al igual que Jose Angel Irigarai, de navarros que han pasado a las letras de oro de la literatura vasca. Kike es hijo de Pedro Díez de Ultzurrun, quien fuera Director de la Sección para el Fomento del Vascuence de la Diputación Foral de Navarra, y Jose Angel Irigarai es hijo y nieto de escritores vascos de Navarra. Su padre fue Aingeru Irigarai "Apat-Etxebarne" y su abuelo el gran escritor Fermin Irigarai "Larreko"). Pero hay más periodistas que han cultivado o cultivan la literatura, Alberto Barandiarán o Felipe Rius son buena prueba de ello.

Hace ya bastante años desde que nuestro llorado Don José María Jimeno Jurío publicara *Navarra Historia del Euskera*, librito que recibí personalmente de manos de su hijo, Roldán Jimeno Aranguren, gran historiador y mejor amigo, quien también se ha adentrado en el mundo de la literatura participando en las lecturas de textos libres organizados por el Ayuntamiento de Pamplona y el Ateneo Navarro. Pues bien, en dicho libro se recoge una larga lista de autores

**120**

navarros en euskera que han sido premiados a lo largo de la historia en los diferentes certámenes literarios (Mariano Izeta y otros muchos). En el libro, además, se recoge el devenir de la literatura vasca en Navarra desde sus inicios hasta nuestros días. Dejo, además, muchos autores en el tintero, como por ejemplo, Arturo Campión y aquellos que como Alexander Tapia Perurena y tantos otros que Bidador rescatara.

Pero tan solo hay que darse una vuelta por nuestras bibliotecas y buscar estos libritos deliciosos y redescubrirlos, el citado más arriba de Bidador o el que os recomiendo ahora de Jose María Jimeno Jurío. También quiero recomendarles a todos aquellos que sepan euskera, los dos tomos del libro *Nafarroako euskal idazleak* de Jose María Larrea Muxica y Periko Díez de Ultzurrun. En ellos descubriréis otros autores de renombre que no he citado como Enrique Zubiri "Manezaundi" o Nicolás Ormaetxea "Orixe" (más navarro que guipuzcoano). Todos estos libros están recogidos en nuestras bibliotecas. En ellas se guarda nuestro pasado y se escribe día a día nuestro presente.

Necesitamos de su apoyo para que el euskera se mantenga vivo y para que nuestro tesoro cultural no se pierda. Las bibliotecas, a su vez, necesitan del apoyo de las instituciones correspondientes para que puedan seguir realizando su labor de manera eficaz. Sin las bibliotecas muchos libros se perderían. La vida de un libro desde que se publica hasta que acaba siendo arrinconado en la estantería de los libros que ya nadie quiere comprar, es muy corta. En las bibliotecas los libros siempre están vivos, siempre están a mano del lector, y tanto este último, como el escritor y el propio euskera necesitan de las bibliotecas para respirar. Quizás no hayamos sabido agradecer como se merecen tanto trabajo tan bien realizado y tan callado. Vaya desde aquí mi reconocimiento y mi deseo de que podáis seguir desarrollando vuestra labor en libertad por muchos años. *Mila esker, bihotz-bihotzez*.

dagoeneko salgai, beste liburu batzuk oso bakanak dira eta zailak dira aurkitzeko... Biblioteken lana ezinbestekoa da liburu horiek guztiak gordetzeko eta ezagutzera emateko. Euskara altxor bat da, topiko dela erraten ahal du baten batek, baina niretzat egia. Altxor honek bi adierazpide nagusi ditu: bata mintzatua, bestea idatzia. Ahozko literaturarako fonotekak behar ditugu, eta lan handia egiten ari da alor honetan. Baina idatzizko literaturarako bibliotekak behar ditugu. Haien sostengua behar dugu. Euskara eta euskal literatura bizkortuko dira honela.